ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# ELAkuilu

Iberdrolako atal-sindikala

## EDITORIAL

**No nos cansaremos de repetir que la única salida a la crisis es el reparto de la riqueza. Tanto la fiscalidad como las leyes las dictan las grandes empresas y grupos de poder; el poder político gobernante es un mero transmisor de sus deseos incapaz de ponerse al servicio de la mayoría ciudadana a cambio de grandes beneficios particulares…**

**Solo desde la organización del descontento (afiliación, sindicalización, militancia…) y la movilización ciudadana, será posible una nueva realidad social. Hay alternativas, pero todas pasan por forzar a adoptarlas al enemigo de las mismas. Y hay que luchar comenzando desde el ámbito más pequeño (ya que es donde mayor capacidad de influencia tenemos), hasta el mayor ámbito de toma de decisiones…**

**Nos entristece ver como el resto de sindicatos se enzarzan en peleas por sus intereses particulares (último ejemplo: la no-subida del EBIT), mientras las únicas perjudicadas somos las trabajadoras y a la hora de la verdad van de la mano en la toma de decisiones en contra de la clase trabajadora, tanto en Iberdrola (firma de convenios, acuerdos, procedimientos,…), como a nivel general (pensiones, moderación salarial, pantomima del Dialogo Social,…).**

**Advertimos que nos quitarán TODO lo que quieran que no seamos capaces de defender… El camino que proponemos es el más difícil y el protagonista eres tú… Pero es el único que nos permitirá avanzar hacia una sociedad más justa.**

## Firma IV Convenio Iberdrola Ingeniería y Construcción (II&C)

# ACUERDO NEFASTO

El pasado 14 de marzo tras "arduas y difíciles" negociaciones (en el plazo de un mes…, snif.), el 100% de la Representación Social (ATYPE, CCOO, UGT y USO) firmó el **convenio más regresivo de la historia de Iberdrola Grupo**. Los que comenzaron pidiendo aumento del poder adquisitivo, mejora de las condiciones, etc. no han tenido ningún problema en firmar bajada salarial, recorte de pluses, 10% de copago en Medicina Asistencial y Plan de Previsión y, por supuesto, subida salarial ligada a Objetivos marcados por la empresa (con el agravante de que en caso de lograr el 120% la subida será del 1%…) Ni un artículo contra la Reforma Laboral (inaplicación del Convenio, ultra-actividad, flexibilidad,…), ni ninguna garantía de mantenimiento del puesto de trabajo,…

Al día siguiente de la firma, se publica en la Intranet la adjudicación (240 M €) a II&C de la construcción de una Central de Ciclo Combinado en Alemania, remarcando "el liderazgo en proyectos de generación incluso en mercados tan exigentes y en competencia con otras empresas europeas como Siemens, Alstom,…"

II&C (antigua Iberinco) es 100% Iberdrola, y mucho nos tememos que pueda haber sido **un banco de pruebas…** Pretenden convencernos de que es necesaria la rebaja salarial de la plantilla (la sujeta a Convenio, claro…) para la viabilidad de la empresa y de que el puesto de trabajo en si mismo ya es un activo…

Ante esta actitud, hay sindicatos que se guardan los principios para los discursos y sólo miran por su interés particular. Y estamos quienes luchamos por no seguir agravando la crisis, intentando que la Clase Trabajadora recupere terreno en la distribución de la riqueza…

**¿Tú a quien apoyas?**

**Nota: Toda la revista va en femenino porque nos referimos siempre a "personas". Ejemplo: las ("personas") trabajadoras. ¡La lucha por la igualdad es diaria!**



# TRABAJOS EN SOLITARIO. COSTES-SEGURIDAD-INTERESES...

Basándose y amparándose en el RD 614/2001 (es curioso que se olviden de otras normas como la de recintos confinados…), la empresa, con el apoyo de los sindicatos CCOO, USO, SIE, UGT y ATYPE, ha realizado un **documento de trabajos en solitario y en situación de aislamiento** con el cual no estamos de acuerdo.

La realización de dichos trabajos por un solo operario (cambiando completamente la filosofía de trabajo existente) va a generar **inseguridad**. ¿Dónde queda la consulta y los Grupos de Trabajo como el Radar? **El 100% de las implicadas lo califica de aberración** y opina que será cuestión de tiempo el que haya accidentes (habida cuenta de los incidentes que han sufrido y han solventado al estar dos personas…).

Mientras llevamos años pidiendo la realización del Retén en Renovables por parejas, ¿por qué se acepta este cambio de filosofía? ¿Cómo va a afectar en un futuro a los retenes? ¿Y a los planes de jubilación/renovación de plantilla? ¿Y a las facilidades para la subcontratación/acompañamiento?

A todas las que lo vais a sufrir en vuestras propias carnes, la Empresa os redirigirá y argumentará que **"cuenta con el visto bueno de la mayoría sindical…"** A ver como son capaces de defenderlo…

De momento, la empresa ya ha empezado a dotarse de más Tablets y vehículos…

# FALTA DE RESPETO AL EUSKERA

Desde que se publicó la denominación oficial de las provincias y municipios de la Comunidad Autónoma Vasca, nos hemos dirigido a la empresa en múltiples ocasiones para no volver a ver denominaciones inexistentes como "Guipuzcoa, Vizcaya o Baracaldo…" (¿os imagináis utilizar Caesaraugusta=Zaragoza, o Cartagonova=Cartagena,…?) Nunca hemos recibido respuesta ni mucho menos **han asumido la obligatoriedad de la Ley**. Lo mismo se puede decir de todos los carteles, anuncios y demás comunicaciones oficiales… Ya hemos sufrido simulacros en nuestro entorno y el euskera como lengua oficial, ni figura en los mensajes de advertencia, ni en los protocolos para los equipos externos de emergencia.

Ligado a este tema, desde **ELA** hacemos un llamamiento a la plantilla a que con un pequeño gesto potenciemos el trabajo en nuestro entorno: siempre que utilicemos cualquier Servicio de Atención al Cliente, **exijamos que sea en nuestra lengua autóctona (Euskera)** para posteriormente dirigirnos en el idioma que estimemos oportuno. Así, evitaremos la deslocalización de este tipo de empresas, como están sufriendo nuestras compañeras de Konekta en Güeñes gracias a la colaboración de Iberdrola.




# 30 DE MAYO, HUELGA GENERAL

Los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, Hiru y CNT, junto a decenas de organizaciones sociales, han convocado una huelga general para el 30 de mayo, bajo el lema *Eskubide sozial eta laboral duinak. Por un modelo propio en Euskal Herria.* La huelga general que convocamos para el dia 30 de mayo es necesaria, es indispensable, es un "ya basta!" alto, energico y firme ante todos los ataques a nuestros derechos que provienen de los distintos gobiernos y es un impulso a este proceso de construccion de la alternativa. Reivindicamos un cambio radical de las prioridades de las politicas publicas e instamos a las actuales instituciones de Euskal Herria a tomar cuantas iniciativas institucionales, politicas y legislativas sean necesarias para conseguirlo. **¡30 DE MAYO, HUELGA GENERAL!**

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# ELAkuilu

## Iberdrolako atal-sindikala

### EDITORIALA

**Ez gara nekatuko errepikatzen krisiaren irtenbide bakarra aberastasuna banatzea dela. Bai fiskalitatea, bai legeak, enpresa handiek eta aginte-taldeek diktatzen dituzte. Agintari politikoek gauzatu egiten dituzte haien asmoak, onura partikular handien trukean, herritar gehienen zerbitzura jarri beharrean.**

**Jendearen haserrea antolatuz (afiliazioa, sindikalizazioa, militantzia...) eta herritarrak mobilizatuz bakarrik ekarri ahal izango dugu gizarte-eredu berri bat. Alternatibak badaude, baina kontra daudenak behartu behar ditugu alternatiba horiek onartzera. Eta esparrurik txikienetik hasi behar gara, hor baitugu eragin-ahalmenik handiena, eta arian-arian erabakiak hartzen diren esparru handiagoetara joko dugu.**

**Penagarria da ikustea gainerako sindikatuak zezioetan lardaskaturik egotea interes partikularrengatik (azken adibidea: EBIT ez igotzeagatik). Hortik kaltetan ateratzen diren bakarrak langileok gara. Azken batean, sindikatu horiek eskutik doaz langileriaren aurkako erabakiak hartzen dituztenekin, bai Iberdrolan (hitzarmenak, akordioak, prozedurak... sinatuz), bai maila orokorrean (pentsioak, soldaten neurritasuna, gizarte-elkarrizketaren itxurakeria...)**

**Ondo zaintzen asmatzen ez dugun ORO kenduko digute, hori jakin behar dugu. Proposatzen dizugun bidea denetan zailena da, eta zeu zara protagonista. Baina bide horretatik bai abiatuko garela gizarte zuzenago baterantz.**

## Iberdrola Ingeniaritza eta Eraikuntzaren IV. Hitzarmenaren sinadura

# AKORDIO NEGARGARRIA

Martxoaren 14an, negoziazio "neketsu eta zailak" burutu ondoren (hilabete baten barruan eginak), langileen ordezkarien %100ek (ATYPE, CCOO, UGT eta USO) **Iberdrola Taldearen inoizko hitzarmenik atzerakoiena** sinatu zuten. Erosteahalmena igotzeko, lan-baldintzak hobetzeko eta abar eskatzen hasi zirenak, azkenean ez dute arazorik ikusi beste baldintza hauek sinatzeko: soldata-jaitsiera, plusen murrizketa, %10eko ordainkidetza arretamedikuntzan eta aurreikuspen-planean, eta, jakina, soldata-igoera lotuko zaie enpresak ezarritako helburuei (%120 lortuz gero, igoera %1ekoa). Ez dago artikulu bat ere lan-erreformatik babesteko (hitzarmena bete gabe uztea, aurrera-eragina, malgutasuna...), ez dago berme bat ere lanpostua mantentzeko...

Hitzarmena sinatu zen egunaren biharamunean esleipen bat argitaratu zen intraneten: ziklo konbinatuko zentral bat eraikitzea (240 M €) Alemanian II&C enpresari emana. Eta zera azpimarratzen zen: "azken belaunaldiko proiektuetan, hain merkatu zorrotzetan, eta beste enpresa europarrekin lehian (Siemens, Alstom...) lidergoa noren eskuetan dagoen argi geratu da".




II&C (lehengo Iberinco) Iberdrola da %100ean, eta beldur gara ez ote den izan **saiakuntza-banku bat**... Enpresaren bideragarritasuna ziurtatzeko, langileen soldatak (hitzarmenaren menpekoak, noski) jaistea beharrezkoa dela sinestarazi nahi digute, eta lanpostua berez aktibo bat dela...

Horren aurrean sindikatu batzuek printzipioak hitzaldietarako gordetzen dituzte, eta senper orduan nork bere interesari begiratzen dio bakarrik. Eta beste batzuok borrokatzen dugu krisia larriagoa izan ez dadin, eta langileriak azkenaldian galdutakoa –aberastasunaren banaketan– berreskura dezan.

**Zu noren alde jarriko zara?**

# BAKARKAKO LANAK.
# KOSTUAK-SEGURTASUNA-INTERESAK...

614/2001 Errege Dekretua oinarri harturik (bitxia da beste arau batzuk ahanztea, esparru itxietakoa adibidez), enpresak, CCOO, USO, SIE, UGT eta ATYPE sindikatuen laguntzaz, agiri bat prestatu du **–bakarkako lanak eta lan urrunak–**. Gu ez gatoz bat agiri horrekin.

Horrelako lanak langile bakar batek egitea **segurtasunaren kaltetan** joango da (orain arte lan egiteko izan dugun filosofia erabat aldatuko da).

Non geratu da kontsulta, eta lan-taldeak (radar)? **Neurri horren eraginpean geratzen direnen %100ek zentzugabekeria deritzote**, eta istripuak ugalduko direla uste dute (bikote batek askoz hobeto konpontzen dituzte ustekabeak).

Urteak daramatzagu Berriztagarrietan bikoteko lantaldeak eskatuz, zergatik onartu da orain filosofiaz aldatzea? Zenbateko eragina izango du lantaldeetan gerora begira ? Eta erretiro-planetan? Eta plantilla zaharberritzeko planetan? Eta azpikontratatzeko/laguntzeko erraztasunetan?

Zeuen larruan jasan behar duzuenoi enpresak argudiatuko dizue **“gehiengo sindikalaren ontzat emana duela”**. Ea nola egiten duten, gero, aldeko jarduna...

Badaezpada ere, enpresa tableta eta ibilgailu gehiago erosten hasita dago.

# BEGIRAMENIK EZ EUSKARARI

Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeen eta udalerrien izen ofiziala argitaratu zenetik askotan jo dugu enpresara garai bateko izenak gehiago ez ikusteko eske (Guipúzcoa, Vizcaya edo Baracaldo). Zergatik ez dute erabiltzen Caesaraugusta, Zaragozaren partez, edo Cartagonova, Cartagena esateko? Ez digute inoiz erantzun, ezta **legea bete ere**. Beste horrenbeste esan dezakegu kartelez, iragarkiez eta gainerako jakinarazpenez. Simulakroak ere eginak ditugu gure ingurunean, eta oharrak edo mezuak ez dira euskaraz agertu, ezta larrialdiko kanpoko ekipoetarako protokoloak ere.

Horren haritik, **ELA**tik dei egiten diegu langileei ekintza txiki bat egin dezaten: Bezeroari Erantzuteko Zerbitzua erabiltzen dugun guztietan **euskarazko arreta eskatzea**, eta gero nahi dugun hizkuntza erabili. Horrela, enpresa-mota horiek lekualdatzea oztopatuko dugu. Eta ez da gertatuko gure Gueñesko lankideei gertatu zaiena, Konekta eta Iberdrolaren elkar aditzeagatik.




# MAIATZAK 30, GREBA OROKORRA

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, Hiru eta CNT sindikatuek, hamarnaka gizarte erakunderekin elkarlanean, greba orokorra deitu dute maiatzaren 30erako, *Eskubide sozial eta laboral duinak. Por un modelo propio en Euskal Herria* lelopean. Maiatzaren 30erako deitu dugun greba orokorra beharrezkoa da, ezinbestekoa da, “nahikoa da!” ozen eta indarrez oihukatzeko gobernu ezberdinetatik datozen eraso guztien aurrean eta, horrekin batera, alternatiba eraikitzeko prozesu horri hauspoa emateko bultzada. Politika publikoen lehentasunak goitik behera aldatzea aldarrikatzen dugu eta Euskal Herriko gaur egungo instituzioei dei egiten diegu hori lortzeko beharrezkoak diren iniziatiba instituzional, politiko eta legislatibo guztiak har ditzatela. **Maiatzak 30, greba orokorra!**